



Euskadiko Lehendakaria
El Lehendakari de Euskadi

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abendua

Munduko euskaldunok, lagun agurgarriok,

Mundu global batean bizi gara, geroz eta txikiagoa eta irisgarriagoa bihurtu zaigun mundu interkonektatu eta elkarren mendeko batean. Badirudi guztia dugula hurbilago, Interneteko "klik" batekin edo hegazkin-txartel batekin lortzeko moduan; alabaina, sasoi honetan, zuzenean eta pertsonalki opa nahi dizuet Gabon zoriontsuak igaro ditzazuela eta ondo has dezazuela Urte berria.

Lerroon bidez, nahi nuke zuek ere sentitzea gurekin zaudetela; izan ere, guzti-guztiok osatzen dugu egunetik egunera handiagoa den sarea. Gaur egun, 189 Euskal Etxe ditugu; azkena, berriki Marseillan aitortutakoa. Eta Basque Club edo Maison Basque izenekoak ditugu mundu osoko 25 herrialdetan irekita. Zuek ere Euskadiren parte zarete, munduan Euskadi ordezkatzten baituzue.

Kultura bat partekatzen dugu, eta bost kontinenteetan barreiatutako komunitate nazional bat osatzen dugu. Aurten, gainera, elkar ikusteko eta Kanpoko Euskal Kolektibitateen Munduko VI. Biltzarrean parte hartzeko aukera izan dugu, "DIASPORIZATU" lelopean. Asmatutako hitza da hori: gaztelaniaz, "diasporizar"; ingelesez, "diasporize"; eta "diasporiser", frantsesez. Zehazki, kanpoan bizi zareten pertsonok duzuen balioa adierazten du, munduari zabalik dagoen leihoa baitzarete, gure komunitatearen etengabeko harremanetarako zubia. Euskadin bizi garen pertsona guztiok zuek ordezkatzten duzuen bezalako Euskal Komunitate konprometitu eta aktibo bat edukitzeak dakarren balioaz jabetzea nahi genuke.

Horregatik, gure herrialdearen zerbitzura, elkarri laguntza ematea da gure egitekoa. Harreman-zubi hau irekita eduki nahi dugu, zuei informazioa helarazi eta aukeren berri emateko. Eta hala, herri euskaldunaren garra, eta horrekin batera, gure kultura, ohiturak eta bizimoduak mundu luze-zabalean bizirik mantentzeko egiten duzuen zeregina eskertu nahi genizueke.

Belaunaldiz belaunaldi, guztiekin partekatu eta etorkizunean indartu nahi dugun ondare bat jaso dugu. Elkarrekin gure herrialdearentzat balioa sortuko dugun itxaropena dut, eta izugarri eskertzen dizuet egiten duzuen lana. Euskaditik bidaltzen dizkizuet, beraz, Gabonetarako eta Urte berrirako nire desiorik onenak.

Gabon zoriontsuak igaro ditzazuela eta Urte berri on!

Iñigo Urkullu Renteria